

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1143

31/2023 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, 2023. urterako araugintza-plana onartzeko erabakia argitaratzeko dena.

Gobernu Kontseiluak, 2023ko otsailaren 14an egindako bilkuran, 2023. urterako araugintza-plana onartzeko erabakia onartu zuen, eta hari behar bezalako publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2023. urterako araugintza-plana onartzeko erabakiaren testua, zeina ebazpen honen eranskinean jasota baitago.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 21a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 21EKO 31/2023
EBAZPENARENA

ERABAKIA, 2023. URTERAKO ARAUGINTZA-PLANA ONARTZEKO DENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. artikulua lehenengo apartatuan ezartzen duenez, Gobernuak urtero onartu behar du legegintza- eta erre-gelamendu-ekimenak biltzen dituen araugintza-plan bat, Gobernu Kontseiluak urte horretan onar ditzan –kasu honetan, 2023an–.

Gobernantza onaren esparruan, eta gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen printzi-pioak gauzatze aldera, artikulua horren beraren 2. apartatuak araugintza-plana Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzera behartzen du Jaurlaritza.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lehendakariak Jaurlaritzaren jarduna zuzendu eta koordinatzen du, sailburu bakoitzari bere jardunean dagokion eskumen eta erantzukizunari kalterik egin gabe. Koordinazio-lan horretan, Lehendakariak Idazkaritza Nagusiak koordinatzen ditu urteko araugintza-planaren argitalpena eta jarraipena, Jaurlaritzako sailekin lankidetzan.

Eusko Jaurlaritzako 2023. urterako araugintza-plana osatzeko, sailek dagokien urteko arau-gintza-plana onartu eta Lehendakariak Idazkaritza Nagusira igorri dute, eta horrekin osatu da, hain zuzen ere, 2023ko Urteko Araugintza Plana.

Hori guztia dela eta, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18 l) artikuluan ezarritakoaren arabera, lehendakariak proposatuta eta dagokion eztabaidaren ondo-ren, Gobernu Kontseiluak hau erabaki du:

Lehenengoa.– 2023. urteari dagokion Eusko Jaurlaritzaren Urteko Araugintza Plana onartzea, eranskinean ageri dena.

Bigarrena.– Aipatutako plana argitaratzea, lege eskatutako lekuetan ez ezik, gardentasunaren, parte-hartzearen eta lankidetzaren atarian –Irekia–, beharrezkoak diren informazioa eta parte-har-tzea bermatzeko.

Hirugarrena.– Planean agertzen ez diren baina 2023an hasi behar diren xedapen orokorre-i dagokienez, zirkunstantzia hori memorietan arrazoitu beharko da.

Laugarrena.– Jaurlaritzako sailek memoria bat egingo dute, azaltzeko dagokion urtean nola bete den araugintza-plangintza. Memoria hori Lehendakariaren Idazkaritza Nagusira igorriko da 2024ko lehenengo hiruhilekoan, 2023. urterako araugintza-planaren gauzatzeari buruzko memo-ria bateratua argitaratu dadin.